

# Lasalletarrak

*Los religiosos lasalianos (La Salle: oficialmente, "Hermanos de las Escuelas Cristianas") han sido en Euskal Herria un Instituto de presencia sólida en el sistema educativo. Acaban de cumplir el centenario de su primer establecimiento en Gipuzkoa (1905), pero ya antes estaban en Bayona (1820). Su servicio ha alcanzado a sucesivas generaciones y decenas de miles de alumnos.*

Eskola Kristaueetako Anaien Institutu hau (*Lasalletarra*, esan nahi dut) bereziki Hezkuntza eta Irakaskuntzarako jaiotakoa da, hori izan du jatorrizko xedea eta zeregin horretan dihardu geroztik, luzaro mutilentzako lanean eta urte batzuetatik hona neskei ere bere ikastetxeetako atea irekiz.

## **Euskal Herrira aurretik**

Beste zenbait kasutan ikusi dugun bezala, lasalletarrek ere Frantzia izan dituzte beren lehen sustraiak, baina gure artean ikastetxeak ireki eta bertako semeek handik etorritakoei erreleboa hartu ondoren beren harrobia hemen bertan dute aspalditik, Iparraldean bezala Hegoaldean.

Institutu honen historia hobeki ezagutzeko komeni da Euskal Herrikoaren aurreko historiaz zerbait bederen gogoraraztea.

Lasalletarren fundatzailea San Joan Bautista de La Salle izan zen (1651-1719), apaiz eta pedagogoa. Oso gazterik eman zen eliz zereginetara, eta Reims bere sorterriko Diozesian kalonje izatera heldu zen oso gazterik. Eliz goi-ikasketak egin eta doktoretza Pariseko Sorbonan irabazi ondoren, apaiztu zen (1678).

Urratsez urrats joan zen bere bokazioa argitzen, inguruak eta ingurukoek lagunduta,

beti ere begi aurrean jarri zitzaizkion arazo eta premien eskakizunek akuilatuta. 1679az geroztik, Reims hirian behartsuentzako herri-eskolak sortzeari eman zen, eta zeuden behar larriak ezagutu ahal izan zituen. 1681eko goseteak eraginda, familiarik zetozkion ondatsun guztiak banatu, eta inguruan biltzen ari zitzaizkion maisu pobreekin bat egin zuen, haur eta gaztetxoek zerbitzuan jarduteko.

Hain zuzen, lagunarte horretatik joan zen gorputza hartzen gerora Eskola Kristaueetako Anaiak bezala ezagutu den Elkartea. Egia esan, arauak eman eta guztiak biziera gidatzen ahalegindu baldin bazen ere, Elkartearen izaera juridikoak ez zuen sobera kezkatu Joan Bautista.

Reims, Paris eta Rouen izan ziren De la Salle-ren lantegi-gune nagusiak, azkenik Kongregazioaren ama-etxea Rouen-eko Saint-Yon auzoan hautatu zuen arte (1705).

Herrietako maisu pobreak elkartasunean bildu, eta maisugai gazteak ahalik ongien prestatzea izan zen Joan Bautistaren bizitzako zereginik nagusiena, eta horrekin batera eta guztien lankidetzarekin eskola-mota ezberdinak sortu ahal izan zituen: lehen eskolak, igande-eskolak, lanbide-eskolak, haur zailentzako babes-etxeak... Irudimena, ekimenak eta lan-gogoia ez zitzaion falta izan Joan Bautistari.





Lehenengo Irakasle-Eskolen (Normal deituen) sorrera ere haren eskutik etorri zen.

Pedagogiaren berritzaile teoriko eta praktikoko honi zor zaio, azkenik, esandako Anaien Elkarte, aparteko berezitasuna duena: De la Salle apaiza zen, baina Anaiak laikoak izatea nahi zuen, erabat hezkuntza lanera emanak, eta lasalletarrena da Eliza katolikoan mota horretako lehen Elkarte, Aita Santuak 1725-ean horrelaxe onartu zuena.

### **Lasalletar euskal herritarrek**

Hegoaldean baino lehenago Iparraldean izan zituzten lasalletarrek beren Ikastetxeak, izan ere 1920az geroztik Baionan izan baitzuten lehenengoa. Laster, Anaia Kristauen Kongregazio honek bere euskal idazle ezagun bat ere izan zuen: Mixel Elizanburu (1826-1895), urtean Hazparneko Ikastetxeko zuzendaria (1848...) eta euskal idazle emankorra. Eta berorekin batera ezin da ahaztu Juvenal Martyr Anaia (Arnaud Agirre, 1850-1932), Iparralde-Hegoaldeetan, bietan, bizi izan zena eta hiztegi baten egilea.

Lasalletarren Hegoaldeko lurraldea batez ere Gipuzkoa izan da XX. mendearen hasieratik hona, eta hain zuzen Ikastetxe giputzei buruz egin dira ikerlan historikorik aberatsenak (M. Ostolaza eta Dávila-Naya-Murua historialarien eskutik).

1905-1906.etatik hasita, hamalau herritan izan dituzte lasalletarrek ikastetxeak, eta Donostia, Irun, Eibar eta Zarautzen Etxe eta toki ezberdinetan, gainera. Batzuek bizialdi laburragoa izan zuten (Elgeta, Elgoibar, Legazpi, Zestoa, Usurbil, Ordizia edo Honda-

ribian, adibidez), baina luzaro, gure egunak arte, biziraundakorik ez da falta (Andoain, Beasain, Zumarraga).

Aipatutako ikerlanei esker, Ikastetxez Ikastetxe ezagut daiteke orain Etxe bakoitzeko bizi-molde eta jarduera.

Gurasoen konfiantza eta ikasleen kopuru-hazkundea nabariak izan ditu La Salle-k Gipuzkoan, aurreko mendearen hasieratik 1980 hamarkadaraino urtero 9.000 ikasle inguru izan baititu, eta 1974tik aurrera neskek ere tartean direla. Gaur egun ikasle gipuzkoarrak 5.500 inguruan dabilta. Pentsa zer esan nahi duen horrek: elkarren segidako belaunaldiak batera zenbatuz, milaka asko izan dira Ikastetxe lasalletarretan eskolatu diren gipuzkoarrak.

Ikasgaien eskaintza eta mailatan aldatu eta osatuz joan dira Ikastetxe hauek; haur- eta lehen irakaskuntzak izan ziren batez ere aurreko mendearen lehen erdian, eta bigarrean, ostera, gero eta garrantzi eta leku gehiago eman zitzaizkien bigarren irakaskuntzari eta lanbide-heziketari. Gaur egun irekita dauden guztietan maila guztiak indarrean daude, salbuespen bakar batekin (Donostiako San Luisek ez du lanbide-heziketarik).

Lasalletarrak munduko 82 herrialdeetan dituzte Etxeak, eta milioiren bat ikaslerentzat lan egiten dute, ehun milaren bat lankide herritarrekin batera. Euskal Herria "Bilboko Probintzia" deitzen den barrutian dago, eta gaur egun hamaika udalerritan dituzte beren Anaiarteak.

**Joseba Intxausti**

*Galderak eta oharak: 610273580*